


# IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

15 URTEURRENA  
ANIBERSARIO



## IGARTUBIZIA ... IBON TELLERIA-REN ESKUTIK

Ibon Telleria Donostiako Arkitektura Eskolako irakaslea da eta Arkaitz Lasarekin batera “LA+TJ arkitektoak” zuzentzen du. Ezkio-Itsasoko Zelaia baserriaren birgaitze lanak burutu dituzte eta ekainaren 5ean Igartubeiti Baserri Museoak antolatutako bisita gidatua eskaini zuten.

**Arkitektoa eta EHUKo irakaslea zara, nola piztu zitzaizun ondarearekiko eta baserriekiko interesa?**

Dela urte batzuk, Usurbilgo *Ibarrola Haundi* baserriaren birgaitze lanak egitea egokitu zitzaidan. Aurretiko datu bilketarekin nebilela, jabetu nintzen ikerketa lan hauetan zenbateko informazioa zegoen eta zein garrantzitsu eta interesgarria zen.

Garai berean, Unibertsitatearen kontextuko lanetan murgilduta, nire ikerketa profila definitu behar nuen. Ibarrola Haundiren esperientzian oinarrituta, ondarea, birgaitzea eta baserriaren mundua izango zela garbi ikusi nuen.

Handik aurrera, bai bulegoko lanak bai ikerketakoak ere, esparru honetan mugitu dira.

**Noiz eta nola izan zenuen lehen kontaktua Igartubeitirekin?**

Alberto Santanak baserrien inguruan emandako hitzaldiren batean, Ezkion Aldundiak baserri bat museo moduan birgaitzen ari zela aipatu zuen.

Donostiako Eraikuntza LHko Institutuan izan zen hitzaldia, 1997. urtean, gaizki gogoratzen ez badut.



**Zelaia baserria XVI. mendekoa da eta Ezkion dago. Ze berdintasun eta ezberdintasun ditu oinarrian Igartubeitirekiko?**

Xehetasun konstruktiboaren esparruan, antzekotasun handiak dituzten baserriak dira, biak zurezko egitura eta itxiturarekin, tolare bat hartzen duena bere barnean. Neurrietan aurkitu ditzazkegu bereiztasun handienak; Igartubeitiren kasuan, tolareak baserriari bere bolumenaren neurria ematen dion bitartean, Zelaaren

kasuan, eraikinaren bolumena handiagoa da, landako aktibitateko pabilioi bat bezela agertzen da.



batean azaldu daitekenaren konplementu ezin hobea.

Egungo gure gizartean, XVI-XVII. mendeko baserri baten funtzionamendua nolakoa zen ahaztua genuen eta Igartubeitik memoria hori berreskuratzeko gaitasuna izan du. Baserriak eta erakusketak azaltzen digunarekin, lurraldean ditugun hainbat eta hainbat eredu nolakoak ziren ikuskatzera eta ulertzera laguntzen gaitu.

Berezia, interesgarria eta ezinbestekoa bertakoak garenontzat.

**Ba al dago Igartubeiti baserrian zuretzat balio berezia duen objekturik edo elementurik?**

Elementu asko dira balio berezia dutenak, baina zerbait bereziki aipatu beharko banu toleara bera litzateke. Berezko nortasuna eta neurria ematen dion objektua da dudarik gabe.



**Askotan izan zara Igartubeitin, zure arkitektura ikasleekin ere bai. Nolakoa da sentsazioa Igartubeitira sartzean?**

Askotan izan naiz Igartubeitin, arkitektura, ondarea eta baserriaren munduko jendearekin, eta hauen artean, noski, ikasleak ere. Garaiko baserri baten eskala, materialtasuna eta atmosferara gerturatzeko bidai bat da Igartubeitirako bisita egitea. Klase